El primero de los casos requiere una solución urgente teniendo en cuenta que es un factor muy negativo en la recuperación de la bahía y la calidad del agua en el entorno. El segundo de los casos indica que es necesario un mayor control y el fomento de la prevención al objeto de evitar nuevos vertidos contaminantes.

Hori dela eta, hau da gure

Por todo ello, presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eska dezala, Pasaiako portuko erakunde arteko mahaian, presaz egiteko Txingurri errekako obrak, badiara gai kutsatzaile gehiagorik ez isurtzeko.

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a solicitar, en el seno de la mesa interinstitucional del puerto de Pasaia, la ejecución urgente de las obras necesarias en la regata de Txingurri que permitan acabar con los vertidos contaminantes en la bahía.

2. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gobernu Taldeari iker dezala noren erantzukizuna izan zen irailaren 29an Añorga errekan izandako isuria, eta, hala badagokio, erantzuleak zigortu ditzala.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a determinar y, en su caso, sancionar a los responsables del vertido de Añorga producido el pasado 29 de septiembre.

3. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari egin dezala kontzientziazio kanpaina bat hirian, hiriko erreketan isuri kutsatzaile gehiagorik izan ez dadin.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a desarrollar una campaña de concienciación en la ciudad que permita prevenir y evitar nuevos vertidos contaminantes en regatas de la ciudad.

Donostia, 2019ko urriaren 18a

Donostia, de 18 de octubre de 2019

Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”.

Haizea Garay Gallastegui
Concejala de Elkarrekin Donostia”.

Haizea Garay Gallastegui andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora. D.ª Haizea Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

------------

**II.2.21. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Udalak jarritako puntu moreak direla eta.**

“Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Udalak jarritako puntu moreak direla eta, osoko bilkuran aztertzeko. Mozioa irailaren 16an Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den uztailaren 14an, “Baietzik gabe, ezetz da!” indarkeria sexistaren aurkako udako kanpainaren aurkezpenean, Eneko Goiak prentsan adierazi zuen “eraso sexistak prebenitzeko eta borrokatzeko kanpaina bat” zela; gaineratu zuenez, “denon ardura da eraso sexistei aurre egitea eta guk ere egin behar dugu ekarpena”. Agerraldi berean, gobernu taldeko Berdintasuneko zinegotzi

**II.2.21. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, en relación a los puntos morados instalados por el Ayuntamiento**

“Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno en relación a los puntos morados instalados por el ayuntamiento. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Servicio a las Personas pasado 16 de Septiembre.

JUSTIFICACIÓN

El pasado 14 de julio, en la presentación de la campaña de verano contra la violencia sexista “Si no hay sí, es no” , Eneko Goia declaraba a la prensa que es «una campaña para prevenir y combatir las agresiones machistas”, añadiendo que «ante las agresiones sexistas, tenemos una responsabilidad compartida en la que también nosotros debemos aportar». En esa misma comperecencia, la concejala de

Duñike Agirrezabalagak adierazi zuen, zoritxarrez, erasoak areagotu egiten direla jaietan. Hori dela eta, Aste Nagusian “informazio gune mugigarri” bat jarri zen Bretxa inguruan, egunero 22:30ak arte irekita egon zena. “Eremu babestu bat izatea nahi dugu, eta, norbait eraso sexista baten biktima edo lekuko izan bada, hara joatea”, adierazi zuen zinegotziak.

Igualdad del equipo de gobierno, Duñique Agirrezabalaga afirmaba que “por desgracia (las agresiones), suelen intensificarse en períodos festivos». En ese sentido, para la Semana Grande se habilitó un “punto de información móvil” en la zona de la Bretxa abierto todos los días hasta las 22:30, que -según declaraciones de la concejala- “queremos que sea un espacio protegido al que se acuda en caso de ser víctima o testigo de un acto de agresión sexista”.

Zoritxarrez, Aste Nagusian, berriz ere iritzi publikoa eta, batez ere, emakumeok ikaratu egin gara eraso matxisten salaketekin. Udal Gobernuak esan du lau eraso salatu zituztela, eta argudiatu du horiek izan direla judizialki izapidetu diren bakarrak.

Por desgracia, la pasada Semana Grande nuevamente la opinión pública, y especialmente las mujeres, recibimos con rabia la noticia de nuevas denuncias de agresiones machistas. Por una parte, el Gobierno Municipal afirma que han sido cuatro las agresiones denunciadas, alegando que son las únicas que han sido tramitadas judicialmente.

Bestalde, Donostiako Piratek jakinarazi dute Aste Nagusian haien puntu morean 14 eraso baino gehiago salatu zituztela, hainbat eratakoak; horietatik lau eremu horretan izan dira, eta gainerakoak, beste jai eremu edo auzo batzuetan. Horiek hala, eta egoerak gaindituta, hilaren 14an, asteazkenean, erabaki zuten programazioa etetea, 24 ordu baino gutxiagoan sei eraso matxista baino gehiago salatu zituztela eta.

Por otra parte, Donostiako Piratak informó de que, en su Punto Morado, recogieron más de 14 denuncias de agresiones de diferente índole a lo largo de la Semana Grande; de las cuales cuatro sucedieron en este espacio y el resto en otros espacios festivos o barrios. Así las cosas y sobrepasadas por la situación, el día 14, miércoles, decidideron suspender la programación, después de recibir seis denuncias de agresiones machistas en menos de 24 horas.

Gertakari horiek kontuan hartuta, argi dago Udalak Bretxan jarritako informazio gunea ez dela nahikoa izan; informazioa emateko espazio bat izan da hori, ez salaketak jasotzekoa, ez eta eraso matxistak salatu dituzten emakumeei lagun egitekoa ere. Ukaezina da emakume batzuek nahiago izan dutela “ofiziala ez den” puntu more batera joan, puntu “ofizial” batera joan baino. Izan ere, horrelako espazioek errespetatu egin behar

Teniendo en cuenta todos estos hechos, es evidente que el punto de información instalado por el Ayuntamiento en la Bretxa fué insuficiente; es un espacio pensado y diseñado para informar y no tanto para recibir denuncias y acoger a las denunciantes dentro de un espacio diseñado expresamente para tal fin. Es un hecho innegable que hay mujeres que optaron por acudir a un punto de denuncia “no oficial” antes que a uno “oficial”,

dute biktimen eta salatzaileen intimitatea, leku diskretu bat izan behar dute, ikusnahien begiradatik kanpo egongo dena, eta Bretxako puntuak ez zuen baldintza hori betetzen.

Gobernu taldeari horri buruzko interpelazioa egin genion, eta Berdintasuneko zinegotzi ordezkariak aitortu zuen Bretxan jarritako puntua informazio gune bat zela eta ez arreta gune bat. Hortaz, argi geratu da gobernu taldeak egiaz egon ez zen zerbitzu bat eskaini zuela prentsan.

Horregatik guztiagatik, EH BILDU udal taldeak KONTROL MOZIO hau aurkezten du:

1. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari jai guneetan jartzen dituen salaketa puntuek baldintza hauek bete ditzatela: jai guneari egokituta egotea, pertsonei laguntzeko programazio eta aurreikuspen bat izatea; salaketak jartzen dituzten emakumeen beharrei erantzuteko prestatuta eta egokituta egotea; eta genero indarkerian espezializatutako profesionalek ematea arreta.

2. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari zenbatu eta jakinaraz ditzala puntu moreetan jasotako intzidentziak, eta eman dezala aditzera zenbat kexa, lekukotasun, salaketa sozial, ukitze, ahozko eraso eta abar kontabilizatu diren.

3. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari erregistra ditzala emakumeen taldeek sustatutako beste puntuetan jaso diren salaketa sozialak.

4. Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari auzoetako festen aurretik egin ditzala koordinazio bilerak emakumeen

ya este tipo de espacios deben respetar la intimidad de las víctimas, los y las denunciantes, debe ser un lugar discreto y fuera de la mirada de curiosos o curiosas, condiciones que el punto de la Bretxa no cumplía.

Interpelado el equipo de gobierno sobre esta cuestión, la concejala delegada deIgualdad reconoció que el punto instalado en la Brecha era un punto de información y no de atención. Por lo que, queda reflejado que el equipo de gobierno ofertó en prensa un servicio que en realidad no existió.

Por todo ello, el grupo municipal de EH BILDU presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL:

1. El pleno del Ayuntamiento insta al gobierno municipal a instalar puntos de denuncia en espacios festivos que cumplan los requisitos de estar adaptados al espacio festivo, la programación y la previsión de asistencia de personas; estar preparados y ajustados a las necesidades de las mujeres denunciantes; y ofrecer una atención por profesionales especializadas en violencia de género.

2. El pleno del Ayuntamiento insta al gobierno municipal a contabilizar y hacer públicas la relación de incidencias recibidas en los puntos morados; dando a conocer cuántas quejas, testimonios, denuncias sociales, tocamientos, acosos verbales, etc. se han contabilizado.

3. El pleno del Ayuntamiento insta al gobieno municipal a registrar las denuncias sociales que han sido recogidas en otros puntos promovidos por diferentes grupos de mujeres.

4. El pleno del Ayuntamiento insta al gobieno municipal a realizar previamente a las fechas festivas de los barrios reuniones de

taldeekin, sinergiak sortzeko eta eginkizunak Udaleko Berdintasun Bulegoarekin koordinatzeko.

Donostia, 2019ko urriaren 18a

Reyes Carrere Zabala
EH BILDU udal taldeko zinegotzia".

coordinación con los grupos de mujeres para crear sinergias y coordinar las tareas con el departamento de Igualdad del Ayuntamiento.

Donostia, a 18 de octubre del 2019

Reyes Carrere Zabala
Concejala del grupo municipal EH Bildu".

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak eta Mikel Lezama Zubeldia jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/la señores/a D.ª Reyes Carrere Zabala, D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi y D. Mikel Lezama Zubeldia , en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11 – (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 – EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 0**

-----------

**II.2.22. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Harri Berri Oletako ikastetxeko lanekiko gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa.**

"Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98.artikulua oinarri, Mozio hau aurkezten du, Harri Berri Oleta ikastetxeko lanekiko Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa, osoko bilkuran azter dadin.

**II.2.22. Moción de control, presentada por el grupo Elkarrekin Donostia, sobre las previsiones del gobierno respecto a las obras del colegio Harri Berri Oleta.**

"Aitzole Araneta, portavoz del grupo municipal Donostia, en base al artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete esta Moción, sobre las previsiones del Gobierno respecto a las obras del colegio Harri Berri Oleta, a la consideración del Pleno.

JUSTIFIKAZIOA

Harri Berri Oleta eskola publikoko lanak udaran hasi ziren, ikasturte berria hastean ahalik eta eragin txikiena izan zezaten hezkuntza komunitatean eta batez ere haur txikienen gain. Baina lan hauek luze jo dute, eta eragina handia izaten ari dira ikasleen eskola orduetan, txikienen jangelarako sarreran etabar.

Harri Berriko hezkuntza komunitateak bere harridura azaldu zuen zegoen egoerarekiko, eta eskola zuzendaritzak hala eskatuta bilera bat egin zen udaleko ordezkaritza batekin konponbideak bilatzeko. Bertan, harrigarria izan arren, udal gobernuak ez zuen eragina gutxitzeko planik jarri mahai gainean, eta ikastetxeko ordezkariek eman behar izan zituzten alternatiba horiek. Udalak ikastetxeko ordezkariek proposatutako alternatibak onartu besterik ez zuen egin.

Guzti honen ondoren erabaki zuen gobernuak tokiko gobernu batzarreann lan hauek aurrera eramaten ari zen enpresari atzerapenagatik isuna ezartzea.

Komsioan gai honengatik galdetuta, zinegotzi ordezkariak aditzera eman zigun lanak hilabeteko epean bukatuko direla.

Azaldutako guztiagatik, ikus dezakegu ikastetxeko lanen kudeaketan inprobisazioa nabaria dela udal gobernuaren aldetik. Etorkizunean inprobisaziotik atera eta lan hauen planifikazioa, eta ondorioz, ikasle, haur eta ehezkuntza komunitateei ematen zaien kalitate maila nabarmen hobetu beharra dago.

Hori guztia dela eta, hauxe da gure

JUSTIFICACIÓN

Las obras de la escuela pública de Harri Berri Oleta comenzaron en verano, con el fin de que al comienzo del nuevo curso tuvieran menos impacto en la comunidad educativa y sobre todo en los niños y niñas más pequeños. Pero estos trabajos se han prolongado y están teniendo gran influencia en el horario escolar del alumnado, la entrada al comedor del alumnado más pequeño, etc.

La comunidad educativa de Harri Berri expuso su extrañeza respecto a la situación existente y se celebró una reunión con una delegación municipal, a petición de la Dirección del centro, para buscar soluciones. En ella, aunque sea sorprendente, el Gobierno municipal no presentó ningún plan para reducir el impacto, y las alternativas las tuvo que dar la representación del centro. El Ayuntamiento únicamente se limitó a aceptar las alternativas propuestas por la representación del centro.

Tras todo ello, el Gobierno decidió en la Junta de Gobierno Local imponer una multa por retraso a la empresa que estaba llevando a cabo estos trabajos.

La Concejalía delegada, preguntada por este tema en comisión, nos informó que las obras finalizarán en el plazo de un mes.

Por todo lo expuesto, podemos observar que resulta evidente la improvisación por parte del Gobierno municipal en la gestión de los trabajos del centro escolar. Para en un futuro salir de la improvisación y planificar este tipo de trabajos, es necesario mejorar notablemente el nivel de calidad que se da a alumnado y a las comunidades escolares de educación infantil y primaria.

Por todo ello, presento la siguiente

Kontrol Mozioa, Harri Berri Oleta ikastetxeko lanekiko Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzkoa

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari halako arazoak gertatzean eskola komunitateari alternatiba eta epe berriak dituzten planak proposa diezazkiela.

2. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari hezkuntza komunitatearekin Interlokuzio arina ezar dezala.

3. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Harri Berri Oleta ikastetxe publikoko lanak hatzartutako data berrirako bete ditzala.

4. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari ikastetxe publikoetan gauzatuko diren lan handietan hasierako epeak betearazi ditzala.

Donostia, 2019ko urriaren18a

Sinatua: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea".

Moción de Control sobre las previsiones del Gobierno respecto a las obras del colegio Harri Berri Oleta

1. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que, ante estos problemas, proponga a la comunidad escolar planes que recojan alternativas y nuevos plazos.

2. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que establezca una Interlocución fluida con la comunidad educativa.

3. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que cumpla con la nueva fecha consensuada para las obras en el Colegio Público Harri Berri Oleta.

4. El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno municipal a que haga cumplir los plazos iniciales en las grandes obras que se van a desarrollar en los centros públicos.

San Sebastián, a 18 de octubre de 2019

Firmado: Aitzole Araneta.
Portavoz del grupo municipal Elkarrekin Donostia".

Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene en este punto la señora. D.ª Aitzole Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**AHO BATEZ.**

**UNANIMIDAD.**

------------

**II.2.23. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Idiakez kaleko 6.eko eraikinaren enkanteari buruzkoa.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta Idiakez kaleko 6.eko eraikinaren enkanteari buruzko Kontrol Mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan Eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2019ko uztailaren 31n, Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantza Ministerioaren baimenarekin, Idiakez kaleko 6. zenbakian den eraikinaren enkante publikoa egiteko deialdia onartu zen.

Lehen ere atera zuten enkantera eraikin hori, eta saldu gabe geratu zen.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio enkantea berriz ere hutsik geratuz gero, negoziazio bat ireki dezala Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantza Ministerioarekin, Idiakez kaleko 6. zenbakian den eraikinak bihar-etzi izango lituzkeen erabilerak hirian kudeatzeko modua izan dadin.

**II.2.23. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia relativa a la subasta del edificio de la calle Idiakez nº 6.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Moción De Control para su debate en el Pleno, sobre a la subasta del edificio de la calle Idiáquez nº6.

JUSTIFICACIÓN

El 31 de julio de 2019, por autorización del Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social, se aprobó la convocatoria de subasta pública del edificio situado en el nº 6 de la C/Idiáquez, en Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa).

Dicho edificio ya ha sido subastado anteriormente, quedando la subasta desierta.

Teniendo en cuenta estos hechos presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que, de quedar de nuevo la subasta desierta, abra una negociación con el Ministerio de Trabajo, Migraciones y Seguridad Social para que los futuros usos del edificio situado en el nº 6 de la C/Idiáquez puedan ser gestionados en la ciudad.

Donostia, 2019ko urriaren 18a

Izpta.: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea".

Donostia, 18 de Octubre de 2019

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Borja Corominas Fisas jaunak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Eneko Goia Laso alkate jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as. Dª. Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Borja Corominas Fisas, Ricardo Burutaran Ferré y el Alcalde D. Eneko Goia Laso en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 5 - (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 - EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 5 - (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 - EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.**

----------------

**II.2.24. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Amarako garai bateko Gobernu Zibilaren eraikinaren gainekoa.**

"Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta Amarako Garai Bateko Gobernu Zibilaren Eraikinaren Gaineko Kontrol Mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan Eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Badira urte batzuk Donostian badela

**II.2.24. Moción de control, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al edificio del antiguo Gobierno Civil en Amara.**

"Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Moción de control para su debate en el Pleno, sobre el edificio del antiguo Gobierno Civil en Amara.

JUSTIFICACIÓN

En Donostia, hace años que existe un

mugimendu bat Amaran Gobernu Zibila izan zen eraikina kultur etxe bihurtzeko ari dena. Mugimendu hori handitu egin da azkeneko urteotan, Gobernu Zibila Kultur Etxe elkartea sortu eta haren proposamena sustatzeko egin dituen ekimenei esker.

Hala, Gobernu Zibila Kultur Etxe elkartea bilerak egiten aritu da Udalbatza hau osatzen dugun talde politiko guztiekin, eta, hasiera batean, guztien babesa jaso du haren ekimenak.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio akordio bat negoziatu dezala Estatuan hurrena izango den Gobernuarekin, Amaran izan zen Gobernu Zibilaren eraikina hiriarentzat berreskuratu ahal izateko eta hark izango dituen erabilerak Amara auzora bihurtzeko berriz.

Donostia, 2019ko urriaren 18a

Izpta.: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea".

movimiento para que el edificio del antiguo Gobierno Civil, situado en el Barrio de Amara, se convierta en una casa de cultura. Dicho movimiento, ha ido creciendo los últimos años con la creación de la asociación Gobernu Zibila Kultur Etxe y con sus diferentes iniciativas para la promoción de su propuesta.

Gobernu Zibila Kultur Etxe ha mantenido reuniones con todos los grupos políticos que conforman este pleno y , en principio, su iniciativa ha recabado el apoyo de todos ellos.

Teniendo en cuenta estos hechos presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a negociar con el futuro Gobierno del Estado un acuerdo para que el edificio del Antiguo Gobierno Civil situado en Amara pueda ser recuperado para la ciudad y sus futuros usos reviertan en el barrio de Amara

Donostia, 18 de Octubre de 2019

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Eneko Goia Laso alkate jaunak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Jon Markel Ormazabal Gaztañaga jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as. Dª. Aitzole Araneta Zinkunegi, el alcalde D. Eneko Goia Laso, D. Mikel Lezama Zubeldia y D. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga , en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**

**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18 - (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 - PP.**
**ABSTENTZIOAK:0**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18- (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 2 - PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

-------------

**II.2.25. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Defentsa Ministerioak Zorroaga gainean dituen lursail batzuen enkantearen gainekoa.**

“Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaile Aitzole Aranetak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikuluak jartzen duena aintzakotzat hartu eta Defentsa Ministerioak Zorroagan dituen lursail batzuen enkantearen gaineko kontrol mozio hau aurkeztu du, Udalbatzan eztabaidatzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Defentsa Ministerioak bi lursail jarri ditu salgai. Bien artean 30.171 metro koadro egiten dute, Zorroaga gainean daude eta armadak Real Sociedad Hípica Deportiva Militar de San Sebastián delakoaren inguruetan dituen lurren parte dira.

Defentsako Etxebizitza, Azpiegitura eta Ekipamendu Institutuak (Inved) joan den asteartean BOEn argitaratutako ebazpenaren arabera, bi finka dira, hiri lurra da bat (18.925 metro koadro eta bizitoki erabilera duena) eta landa lurra beste (11.246 metro koadrokoa), eta bata bestearen ondoan daude, Urumea ibaiaren ezkerraldean.

Horiek horrela direla, hauxe da gure

**II.2.25. Moción de control, relativa a la subasta de parcelas del Ministerio de Defensa en el Alto de Zorroaga.**

“Aitzole Araneta, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente moción de control para su debate en el pleno, sobre la subasta de parcelas del Ministerio de Defensa en Zorroaga.

JUSTIFICACIÓN

El Ministerio de Defensa ha puesto en venta dos parcelas que suman 30.171 metros cuadrados de superficie ubicadas en la calle Alto de Zorroaga y que forman parte de los terrenos propiedad del Ejército en los alrededores de la Real Sociedad Hípica Deportiva Militar de San Sebastián.

Según la resolución del Instituto de Vivienda, Infraestructura y Equipamiento de la Defensa (Invied) publicado el pasado martes en el BOE, se trata de dos fincas, una de naturaleza urbana de 18.925 metros cuadrados con calificación de uso residencial y otra rústica de 11.246 metros cuadrados, contiguas y situadas ambas en la margen izquierda del río Urumea.

Teniendo en cuenta estos hechos

presentamos la siguiente:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal gobernuari eskatzen dio negoziazioa irekitzeko Defentsa Ministerioarekin eta/edo lursail horiek erostea begiratzeko, etxebizitza babestuak egiteko han.

Donostia, 2019ko urriaren 18a

Izpta.: Aitzole Araneta,
Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramailea".

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a que abra una negociación con el Ministerio de Defensa y/o valore la adquisición de dichas parcelas para destinarlas a la construcción de vivienda protegida.

Donostia, 18 de Octubre de 2019

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Eztabaida hasita, Aitzole Araneta Zinkunegi andreak, Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Eneko Goia Laso Alkate jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as. Dª. Aitzole Araneta Zinkunegi, D. Ricardo Burutaran Ferré y el Alcalde D. Eneko Goia Laso, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 11 - (9) EAJ-PNV, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK: 6 - EH BILDU.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 3 - ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 11 - (9) EAJ-PNV, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 6 - EH BILDU.**

--------------------

**II.2.27. Kontrol Mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, txirrindularitza federazioaren lehiaketa bat bertan behera utzi dela eta.**

**II.2.27. Moción de control presentada por el Grupo EH BILDU en relación a la suspensión de una jornada de competición de la Federación de Ciclismo.**

"Reyes Carrere Zabala EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, txirrindularitzako jardunaldi bat bertan behera utzi dela eta, osoko bilkuran aztertzeko. Mozioa urriaren 14an Pertsonen Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorio da.

JUSTIFIKAZIOA

Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioaren bitartez jakin dugu azaroaren 24an egitekoa zen pistako txirrindularitzako lehiaketa, modalitate horren urteko egutegian sartua, ezin izango dela Donostian egin, Antonio Elorza belodromoa erreserbatua dagoelako azaroaren 21, 22, 23 eta 24an Donostiako maratoiarekin lotutako merkataritza ekitaldi pribatu bat egiteko. Federazioak 2003tik antolatzen ditu, instalazio horretan, pistako txirrindularitzan prestatzeko jardunaldiak, oinarrizko eta emakumezko kategorietan.

Hala ere, duela lau urtetik hona, Donostiako Kiroletako Udal Patronatuak merkataritza ekitaldi pribatu bat lehenesten du, kirol jardueraren aurretik. Horren ondorioz, Federazioak bertan behera utzi behar izaten du lehiaketa jardunaldia, edo Tafallara joan, Donostiakoarekin batera hori baita Euskal Herriko belodromo estali bakarra. Horrek esan nahi du Nafarroaraino joan behar dutela kirolariek (gizon-emakumeak, kadeteak eta juniorrak) eta teknikariek, eta haraino eraman behar direla materiala eta bestelako elementuak, horrek kirol eta ekonomia aldetik dakartzan ondorioekin: kirol ahalmena galtzea eta kostu ekonomikoa handitzea.

Jakina, federazioko eta klubetako arduradunek badakite Donostiako belodromoa publikoa dela

"Reyes Carrere Zabala, concejala del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico de Pleno presenta la siguiente MOCIÓN DE CONTROL para ser tratada en Pleno sobre la suspensión de una jornada de ciclismo. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada en Comisión de Servicio a las Personas pasado 14 de Octubre.

JUSTIFICACIÓN

A través de la la Federación Guipuzcoana de Ciclismo, hemos sabido que la jornada de competición de ciclismo en pista del día 24 de noviembre, integrada en el calendario anual de dicha modalidad, no va a poderse realizar en Donostia ya que el velódromo Antonio Elorza está reservado para la organización de un evento comercial privado los días 21, 22, 23 y 24, coincidiendo con la Marathón de San Sebastián. Cabe señalar que esta federación viene celebrando estas jornadas de formación de ciclismo en pista en las categorías base y féminas en esta instalación desde el año 2003.

Siendo esto así, desde hace cuatro años el Patronato Municipal de Deportes de Donostia, prioriza la realización de un evento comercial privado sobre la práctica deportiva. Esta circunstancia obliga a suspender la competición o a desplazarla hasta Tafalla, ya que, junto con el de Donostia, es el único velódromo cubierto de Euskal Herria. Esto supone desplazar todas las y los deportistas (hombres y mujeres, cadetes y junior), cuadro técnico, material...hasta Navarra, con las consecuencias deportivas y económicas que eso conlleva: pérdida de potencial deportivo y aumento de coste económico del evento.

Lógicamente los/as responsables de la federación y de los clubes son conscientes del

eta, hala den aldetik, beste kirol proba batzuk ere egin behar direla hor, hala nola atletismokoak. Ulertzen dute, gainera, instalazioa egokia dela Udalak eta beste erakunde publiko batzuek interes publikokoak diren kirolaz besteko ekitaldi batzuk antolatzeko, esate baterako Zinemaldia. Baina ez dute ulertzen Udal honek merkataritza jarduera pribatu bat lehenestea, kirola prestakuntza kategorietan sustatzearen aurretik, ikusita, gainera, badirela beste aukera batzuk. Txirrindularitza federazioak berak ere proposatu zituen beste aukera batzuk, Illunbe esaterako, baina erantzuna ezezkoa izan zen, eta, okerragoa dena, ez dirudi asmorik dagoenik beste toki bat bilatu eta arazoa horrela konpontzeko.

carácter público del velódromo donostiarra y que, como tal, debe ser compartido con otras pruebas deportivas como el altletismo. Comprenden, además, que hay eventos de interés público y de carácter no deportivo organizados por el Ayuntamiento u otra institución pública para las que esta instalación es adecuada como es el caso del Zinemaldia. Por lo contrario, no entienden que este Ayuntamiento priorice una actividad comercial privada antes que la promoción del deporte en categorías de formación, existiendo además otras alternativas. La misma federación de ciclismo propuso incluso otras alternativas como Illunbe pero la respuesta fué negativa y, lo que es peor, no parece que haya ninguna intención de solucionar el problema buscando otra ubicación.

Ez dezagun ahaztu Antonio Elorza belodromoa pistako txirrindularitzako eta atletismoko lehiaketak izateko bideratu, diseinatu eta eraikitako udal instalazio bat dela. Gainera, ez zaio bakarrik kirolari kalte egiten, baizik eta, askotan, txirrindularitzako pista eta peloussea ere hondatu egiten dira, bisitari ugari izaten direlako eta, batez ere, ibilgailuak sartzen direlako, marken erakustegietarako materiala ekartzeko.

No olvidemos que el Velódromo Antonio Elorza es una instalación municipal destinada, diseñada y construida para albergar competiciones de ciclismo y atletismo en pista. Además, al perjuicio deportivo sufrido, se suma que, en muchas ocasiones, los daños en la pista de ciclismo y la pelousse derivados de la gran afluencia de visitantes y, fundamentalmente, por la entrada de vehículos de transporte del material destinados a los expositores de las marcas correspondientes.

Hil honetako batzordean, horri buruzko interpelazioa egin diogu Kiroletako zinegotzi ordezkariari, eta hark erabaki hori justifikatzeko esan du ekitaldi hori beharrezkoa dela maratoia babesteko eta nahiko luketela beste batzuek instalazio bat haiek adina egunean eduki.

Interpelado al respecto el concejal delegado de Deportes en la comisión de este mes, justificó esta decisión alegando que este evento es necesario para patrocinar la Marathon y que ya les gustaría a otros disponer de una instalación tantos días como ellos.

Erantzun hori ikusita, gogorarazi behar dugu pistako txirrindularitzak garrantzi eta tradizio handia duela gure hirian eta Kiroletako Udal Patronatuak lehenetsi egin behar duela gure gazteek instalazio publikoetan kirola egitea,

Ante este tipo de respuestas, hay que recordar la importancia y tradición que el ciclismo en pista en nuestra ciudad y que el Patronato Municipal de Deportes debe priorizar la práctica deportiva de nuestros jóvenes en las

merkataritza marka jakin batzuen interes pribatuen gainetik.

Hori horrela, hauxe da nire

KONTROL MOZIOA:

• Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala zer beste tokitan antola daitezkeen merkataritza ekitaldi pribatuak, baldin eta horretarako belodromoa eskatu badute eta egun horietan kirol lehiaketaren bat bada.

• Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari azter dezala Illunbe presta ote daitekeen azoka eta merkataritza ekitaldiak antolatzeko.

Donostia, 2019ko urriaren 18a

Reyes Carrere Zabala
EH BILDU udal taldeko zinegotzia"

instalaciones públicas a los intereses privados de ciertas marcas comerciales.

Por todo ello presento la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL

• El pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a estudiar una ubicación alternativa a los eventos comerciales privados que se soliciten realizar en el velódromo cuando éstos coincidan con una jornada de competición deportiva.

• El pleno del Ayuntamiento de Donostia insta al Gobierno Municipal a estudiar la posibilidad de acondicionar Illunbe para la celebración de ferias y eventos comerciales.

Donostia, a 18 de octubre del 2019

Reyes Carrere Zabala
Concejala del grupo municipal EH Bildu"

Eztabaida hasita, Reyes Carrere Zabala andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak, Jon Insausti Maisterrena jaunak eta Marta Huarte Paño andreak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Abierta la deliberación, intervienen en este punto los/las señores/as. D.ª Reyes Carrere Zabala D. Mikel Lezama Zubeldia, D. Jon Insausti Maisterrena y Marta Huarte Paño, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BERDINKETA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 - EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 2 - PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**EMPATE.**
**VOTOS A FAVOR: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 - EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 2 - PP.**

**BERDINKETA DAGOENEZ, BERRIRO BOZKATZEN DA EH BILDUREN 27. KONTROL MOZIOA / AL PRODUCIRSE UN EMPATE, SE VUELVE A VOTAR LA MOCIÓN DE CONTROL Nº27 DEL GRUPO EH BILDU:**

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BERDIKETA.**
**BAZTERTUA KALITATEZKO BOTOA ERABILIZ.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 - EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 2 - PP.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**EMPATE.**
**RECHAZADA POR VOTO DE CALIDAD.**

**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 9 - EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 2 - PP.**

--------------------

**II.2.28. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako kiroldegiko lanak direla eta.**

“Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14an Lurralde Garapeneko Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Udal teknikariek Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataformarekin 2018ko azaroaren 13an egindako azken bileran jakinarazi zuten hilabete batzuetako atzerapena izango zutela kiroldegiaren eraikuntza lanek, Jaurlaritzak egin beharreko izapide batzuen mende baitzegoen. Atzerapen horren jatorrian zegoen berriz agertu izana amiantoa, ordukoan, kiroldegiaren orubean bertan. Geroztik berririk ez dute izan plataforma horrek ezta altzatarrek ere.

Bestalde, plataformaren lanaren emaitza

**II.2.28. Moción de Control presentada por el Grupo EH BILDU relativa a las obras del Polideportivo de Altza.**

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La moción es consecuencia de la interpelación sustanciada el 14 de octubre de 2019 en la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio.

JUSTIFICACIÓN

En la reunión celebrada el 13 de noviembre del 2018 con la Plataforma por Un Altza Más Sano, el personal técnico municipal comunicó que las obras de construcción del polideportivo se iban a retrasar unos meses, debido a que su inicio depende de unos trámites que debe realizar el Gobierno Vasco. El motivo de dicho retraso era que nuevamente habían detectado la presencia de amianto, en esta ocasión en el propio solar del polideportivo. Desde entonces, ni la citada plataforma ni los y las altzatarras han tenido más noticias sobre esta cuestión.

Uno de los resultados más importantes de la

garrantzitsua izan da Udalak erabaki izana altzatarrek ez ordaindu behar izatea, 2019an, Kirol Txartelaren sarrera kuota. Edonola, ekimen horren emaitzaren berririk ez dugu izan.

labor que realiza la plataforma ha sido la decisión del Ayuntamiento de exonerar a los vecinos y vecinas de Altza del pago de la cuota de entrada de la Kirol Txartela en el año 2019. Sin embargo, no hemos tenido noticia del efecto que ha tenido esta iniciativa.

Era berean, Larres ibarrean egindako lur estaltze lanetan amiantozko partikulak topatu ziren airearen kalitatearen neurketetan. Hori zela eta, lanak eten behar izan ziren hilabetez. Lanak amaituta, kutsatutako lurren gainean parke bat atondu du Udalak, auzotarrek eta Plataformako kideek egindako gomendioei jarraiki. Hala ere, hainbat gorabehera sortu dira eremu berri horretan lanen inguruan, luiziak eta zolatze arriskutsua tarteko. Horiei gehitu behar zaie uralitazko hondarrak agertu izana (ikus eranskina). Gorabehera horiez kexak eta iradokizunak egiteko esparrurik ez die eskaini Udalak herritarrei.

Por otro lado, también se detectaron partículas de amianto en las mediciones de calidad del aire que se llevaron a cabo cuando se estaban acometiendo las obras de recubrimiento de tierra en el valle de Larres. Por ello, hubo que suspender las obras durante un mes. Finalizadas las obras, el Ayuntamiento, siguiendo las recomendaciones de los vecinos y vecinas y de los miembros de la Plataforma, ha acondicionado un parque sobre los suelos contaminados. Sin embargo, en las obras que se están realizando en este nuevo espacio se ha producido una serie de incidentes por desprendimiento y riesgo de pavimentación peligrosa. A todo ello hay que sumar la aparición de restos de uralita (véase el anexo). El Ayuntamiento no ha ofrecido a la ciudadanía ningún espacio para la presentación de quejas y sugerencias relacionadas con este incidente.

Horren haritik, ohartarazi behar dugu ere amiantoa lur azpian gorde arren, ziurtatu behar dela ez bilakatzea hurrengo belaunaldiei eragin diezaieken arazo. Prebentzio politika ezarri behar du Udal gobernuak, eta ez soilik erreaktiboki jardun, orain arte bezala. Gainera, Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataformak ohartarazi zion Udalari Berra egoitzaren inguruan dagoen eremuan (4. ITEMA), amianto hondarrak (uralita) daudela eta irtenbiderik ez zaiola eman oraindik. Premiazkoa da amianto hori jaso eta behar bezala tratatzea berariazko zabortegian. Aipatu bezala, herritarrek ez dute 4 .itemerako asmoen eta epeen berririk, ezta 1, 2 eta 3 itemetako lur estalien egoeraren jarraipena

En este sentido, debemos advertir que, aunque el amianto se oculte bajo tierra, es preciso garantizar que esta medida no se va a convertir en un problema que afectará a generaciones futuras. El Gobierno Municipal debe establecer una política preventiva y no, como viene haciéndolo hasta ahora, actuar solo de manera reactiva. Además, la Plataforma por Un Altza Más Sano advirtió al Ayuntamiento de que en la zona situada alrededor de la residencia Berra (ITEM 4) hay restos de amianto (uralita) y de que no se ha dado solución a dicho problema. Es urgente recoger este amianto y tratarlo adecuadamente en un vertedero específico. Tal y como se ha señalado, la ciudadanía no

egiteko asmorik dagoen ala asmorik ez dagoen ere.

conoce ni los propósitos ni los plazos para el ítem 4, ni tampoco sabe si existe o no la intención de realizar un seguimiento del estado de los suelos cubiertos de los ítems 1, 2 y 3.

Pasa den urriaren 14ko Lurralde Garapeneko batzordean, Ingurumeneko zinegotziak azaldu zuen ez dela aurreikusi Altzako herritarrekin bilera irekirik egitea. Gogorazi behar dugu udal ordezkariek hitzeman zietela Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataformako kideei bilera ireki bat deituko zutela 2019ko otsailean, altzatar guztiei irekia, egitasmoen egoeraren inguruan jarduteko (kiroldegi berriaren eta kanpoko igerilekuen eraikuntzak, lur kutsatuen estaltzea eta horietan eraikiko den parkea, Santa Barbara/Harri Berri eremuan aparkaleku berri bat eraikitzea, 4. itemeko lurren ingurumen azterketak, Oleta ikastetxera irisgarritasuna bermatzeko aukerak…).

En la Comisión de Desarrollo y Planificación del Territorio celebrado el pasado 14 de octubre, el concejal de Medio Ambiente explicó que no se ha previsto celebrar una reunión abierta con los vecinos y vecinas de Altza. Es preciso recordar que, en febrero del 2019, los y las representantes municipales se comprometieron, con los y las integrantes de la Plataforma por Un Altza Más Sano, a convocar una reunión abierta para debatir sobre el estado de los proyectos que se prevé ejecutar en la zona (construcción del nuevo polideportivo y de las piscinas exteriores, cubrimiento de suelos contaminados y construcción de un parque en el espacio resultante, construcción de un nuevo aparcamiento en Santa Barbara/zona Harri Berri, estudio medioambiental de las tierras del ítem 4, posibilidades para garantizar la accesibilidad al colegio Oleta...).

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA:

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari antolatzea bilera ireki bat, Altzako herritarrei zuzendua, Altzako kiroldegiaren egitasmoen egoeraren inguruan jarduteko (kiroldegi berriaren eta kanpoko igerilekuen eraikuntzak) eta baita lur kutsatuen estalketaren jarraipenaz eta 4. itemeko lurrak estaltzeaz, Santa Barbara/Harri Berri eremuan aparkaleku berri bat eraikitzeaz, Oleta ikastetxera irisgarritasuna bermatzeaz eta, oro har, herritarrek dituzten kezken eta beharren inguruan.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que convoque una reunión abierta, dirigida a los vecinos y vecinas de Altza, para tratar el estado de los proyectos relacionados con el polideportivo de dicho barrio (construcción del nuevo polideportivo y de las piscinas exteriores), así como el seguimiento del cubrimiento de los terrenos contaminados y el cubrimiento de los terrenos del ítem 4, la construcción de un nuevo aparcamiento en la zona de Santa Barbara/Harri Berri, la forma de garantizar la accesibilidad al centro escolar Oleta y, en

general, las inquietudes y necesidades de la ciudadanía.

Donostian, 2019ko urriaren 18an.

En San Sebastián, a 18 de octubre de 2019.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Zigor Etxeburua Urbizu
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Zigor Etxeburua Urbizu jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene el S. Zigor Etxeburua Urbizu, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

------------------

**II.2.29. Kontrol Mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Udal lokalen lagapenaren gestioa dela eta.**

"Jon Markel Ormazabal EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14ean Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko urrian Groseko Hondarpe auzo elkarteak idatzizko eskaera bat egin zuen auzo elkarteko lokalaren egoera adieraziz. Dirudienez, lokalean lau gela edo espazio daude: balio anitzeko gela, bulegoa, bilera gela eta itxita dagoen beste espazio bat. Elkarteko

**II.2.29. Moción de Control presentada por el Grupo EH BILDU relativa de la gestión de la cesión de locales municipales.**

Jon Markel Ormazabal, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación tratada en la Comisión de Servicios a las Personas del 14 de octubre de 2019.

JUSTIFICACIÓN

En octubre de 2018, la asociación de vecinos y vecinas Hondarpe de Gros presentó un escrito en el que daba cuenta del estado de su local. Al parecer, el local dispone de cuatro salas o espacios: una sala polivalente, un despacho, una sala de reuniones y un espacio que se

kideen arabera, azken eremu horretako ate horek urteak daramatza itxita eta, gaur egun, elkartea erabiltzen duten 9 eragileek espazio hori beharko lukete haien ekintzak burutzeko.

encuentra cerrado. Según la asociación, la puerta de este último espacio lleva años cerrada y, en la actualidad, los nueve agentes que utilizan la asociación necesitarían este espacio para llevar a cabo sus actividades.

2018ko urriaren 15ean partaidetzako zerbitzutik honako erantzun hau eman zitzaion idatziz auzo elkarteari: egia da lokal hori kirol elkarte bati utzita dafoela eta ez duela erabiltzen. Partaidetzako eta kiroletik txosten bat egin da lokala berreskuratzeko eta beste elkarte bateri lagatzeko. Momentu honetan expedientea ogasun departamenduan dago beraiek jarraipena emateko.

El 15 de octubre de 2018, el Servicio de Participación remitió a la asociación de vecinos y vecinas una respuesta escrita, en la que afirmaba que es cierto que el citado local está cedido a una asociación deportiva, pero que esta no lo utiliza. Asimismo, indicaba que tanto el Servicio de Participación como el de Deportes habían elaborado un informe para recuperar el local y cederlo a otra asociación, y que en aquel momento el expediente se encontraba en el Servicio de Hacienda, para su seguimiento.

Urte bat pasa den honetan, iraileko batzordeetan delegatuari gaiaren inguruan galdetu genion. Delegatuak ez zuen informazio berririk eman gaiaren inguruan eta expedientea ogasun departamentuan jarraitzen zuela esan zuen. Bestetik, informazio gehigarria bidaliko zigula esan zigun, baina gaur egunerarte ez dugu berririk izan. Urriko batzordean delegatua interpelatu dugunean erantzun digu finantza departamenduan dagoela expedientea eta prozedimendua luzatu egin dela. Hau bi urteetan behin eta berriz entzun dugun argudioa da eta ezin dugu ulertu, udal lokalen demanda handia dagoela kontuan izanda, hainbesteko luzapena izatea horrelako tramite bat.

Transcurrido un año, en las comisiones de septiembre, preguntamos a la concejala delegada sobre esta cuestión. La delegada no aportó ninguna información nueva sobre el asunto y declaró que el expediente seguía en el Servicio de Hacienda. Por otra parte, se comprometió a enviarnos información adicional, pero, hasta el día de hoy, no hemos tenido ninguna noticia. Al ser interpelada en la comisión de octubre, la delegada nos respondió que el expediente se encontraba en el departamento financiero y que el procedimiento se había prolongado. Este es un argumento que hemos escuchado en varias ocasiones, durante dos años, y no podemos entender, teniendo en cuenta la gran demanda de locales municipales, que un trámite como éste se extienda tanto en el tiempo.

Donostiako herritarrek hiriko egunerokoan eragile aktiboak eta politika publikoen benetako protagonistak izan daitezen, beharrezkoa da parte-hartze sozialerako politikak landu eta parte-hartzean oinarritutako demokrazian sakontzea. Horrek, gertutasuna

Para que las ciudadanas y ciudadanos donostiarras sea agentes activos en el día a día de la ciudad, así como los verdaderos protagonistas de las políticas públicas, es necesario elaborar políticas de participación social y profundizar en la democracia

eskatzen du Udalaren aldetik, gardentasuna eta edozein praktika klientelista salatzea.

participativa. Para ello, es preciso contar con un Ayuntamiento próximo y transparente, así como denunciar cualquier práctica clientelista.

Esandakoa nahiz azaldutako egoera kontuan hartuta, behean sinatzen duen zinegotziak honako MOZIO hau aurkezten du:

Por todo ello, y teniendo en cuenta la situación anteriormente expuesta, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

KONTROL MOZIOA

MOCIÓN DE CONTROL

1.- Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari 2020ko martxoaren aurretik orain arte erabilerarik ez duen lagapena bertan behera utzi eta berria egin dezala, herritarrek Donostiako bizitza sozio-politikoan parte-hartzeko bitartekoak, guneak eta dinamikak sustatzeko bidean.

1.- El Pleno del Ayuntamiento insta al Gobierno Municipal a que, antes de marzo de 2020, anule la cesión del local que no se ha usado hasta la actualidad, así como que efectúe una nueva cesión, con el objetivo de promover los recursos, espacios y dinámicas necesarias para la participación ciudadana en la vida socio-política de San Sebastián.

Donostian, 2019ko urriaren 18an

San Sebastián, 18 de octubre de 2019

Jon Markel Ormazabal
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Jon Markel Ormazabal,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Jon Markel Ormazabal Gazteñaga jaunak parte hartu du puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Interviene el S. Jon Markel Ormazabal Gaztañaga, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONATUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 18- (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 2 - PP.**
**ABSTENTZIOAK:0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 18- (9) EAJ-PNV, (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 2- PP.**
**ABSTENCIONES:**

--------------------

**II.2.30. Kontrol Mozioa, Elkarrekin Donostia**

**II.2.30. Moción de Control conjunta**

**eta EH BILDU taldeek batera aurkeztua, Okendotegiko auzotarren egoera dela eta.**

"Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik eta EH Bildu udal taldeko zinegotzi Ricardo Burutaran Ferrék, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 98. artikulua oinarri, kontrol mozio hau aurkezten dute, bi taldeok Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aurkeztutako interpelazioen ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia parean lastertasun handiko trenbidea eraikitzeko proiektuan egiten ari diren aldaketa bat Okendotegi kalean dagoen Erbitegi etxeko bizilagunengan eragina izaten ari da, batez ere honako bi arrazoi hauek direla eta:

• Alde batetik, obra gaizki planifikatzeak egun eragin dituen irisgarritasun arazoak direla eta, ez dira bermatzen egoiliarrek eta inguruko industriek behar dituzten segurtasun eta irisgarritasun baldintzen araberako sarbideak, eta horrek guztiak eragina du jarduera horiek bideragarri izateko.

• bestalde, aldaketa horren ondorioz, auzotarrak bizi diren etxebizitzak eraitsi egingo dituzte. Lursaila lehenbailehen okupatu beharekotzat jota dago, eta horrek esan nahi du arazoak konpontzeko epeak laburrak direla.

Gogoratu behar dugu higiezin horietan, gutxienez, bederatzi familia bizi direla; gehienak, adinekoak, erretiratuak edo baliabide ekonomiko eskasak dituztenak, bai eta ama bat eta bere hilabete gutxiko alaba bat ere.

**presentada por los Grupos Elkarrekin Donostia y EH BILDU, relativa a la situación del vecindario de Okendotegi.**

"Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, y Ricardo Burutaran Ferré, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del vigente artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presentan la siguiente MOCIÓN DE CONTROL tras Las interpelaciones de ambos grupos en la Comisión De Espacio Pública, Obras Y Servicios Urbanos del presente mes.

JUSTIFICACIÓN

Una modificación del proyecto de construcción del T.A.V. a su paso por Donostia está afectando a los vecinos de la casa Erbitegi, situada en la calle Okendotegi, principalmente por dos cuestiones:

• por una parte, los actuales problemas de accesibilidad que ha originado la mala planificación de la obra están provocando que no se garanticen unos accesos con las condiciones de seguridad y accesibilidad exigibles, tanto a residentes como a las industrias de la zona, afectando todo ello a la propia viabilidad de dichas actividades.

• por otra parte, esta modificación va a provocar el derribo de las viviendas en las que residen. Se ha declarado la urgente ocupación de su terreno, lo que implica que los tiempos para buscar soluciones a su problemática son reducidos.

Debemos recordar que en dichos inmuebles viven al menos, nueve familias, la mayoría de edad avanzada, jubiladas, o con escasos recursos económicos, así como una madre con su hija de meses de edad.

BOEren bidez jakin zuten Herritarrek etxea eraitsi behar zietela, eta, orain arte, ez ADIFek ez Eusko Jaurlaritzak ez die bermatu bizitzeko aukera bat.

ADIFek emango duen konpentsazio ekonomikoa ez da inondik inora nahikoa izango. Kasu batzuetan, etxea desjabetu eta eraitsi ondoren, bankuarekiko hipoteka zorrari eutsiko diote, garai batean sinatu baitzuten egun ohiko etxebizitza duten etxea erosteko. ADIFen konpentsazio eskasa dela eta, ezinezkoa izango zaie Donostiako udalerrian bizitzen jarraitzeko etxebizitza bat erostea. Beraz, kalean geratuko lirateke, ez duten etxe baten zorra ordaintzen, eta beste etxebizitza bat ordaintzeko baliabide ekonomikorik gabe. Egoera horrek etxebizitza horietan bizi den adin txikikoren bati ere eragiten dio. Etxetik bota egin behar dituzte, eta, segur aski, bizileku berri bat bermatzen ez badiete, hiritik ere botako dituzte.

Gaur egungo egoera oso larria da; izan ere, orain arte ez dute konponbiderik lortu inguru hartako bizilagunentzat. Hil honetako batzordean, EH Bildu eta Elkarrekin Donostiak aurkeztutako interpelazioen aurrean, Gobernuak irtenbide bat bilatzeko konpromisoa hartu zuen, aurreikusitako etxe utzarazpena egin aurretik.

Duela hamabost egun inguruko auzotarrekin elkartu ondoren, epe horretan erantzun bat emateko konpromisoa hartu zuen alkateak. Egutegia aurrera doala eta auzokide horietako etxebizitzen desjabetze data hurbiltzen ari dela ikusita, honako hau aurkezten dugu

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari

Los vecinos se enteraron de la intención del derribo de su casa a través del BOE, y hasta el momento, ni ADIF ni Gobierno Vasco les ha garantizado una alternativa habitacional.

La compensación económica que va a ofrecer ADIF es totalmente insuficiente. En algunos casos, tras la expropiación y el derribo de la casa mantendrían una deuda hipotecaria con el banco, deuda que contrajeron en su día para costear la compra de su vivienda actual, que es su vivienda habitual. Con la escasa compensación de ADIF les va a resultar imposible adquirir una vivienda en el término de Donostia en la que poder seguir residiendo. Por lo tanto, se verían en la calle, pagando la deuda de una casa que no tienen, y sin medios económicos para costearse otra vivienda, situación que afecta incluso a algún menor que vive en las citadas viviendas. Se les expulsa de su casa, y previsiblemente, si no se les garantiza una vivienda de realojo, también se les expulsará de la ciudad.

La circunstancia actual es de extrema gravedad ya que, hasta la fecha, no se ha conseguido una solución para los y las vecinas del lugar. En la comisión del presente mes, ante las interpelaciones presentadas por EH Bildu y Elkarrekin Donostia, el gobierno se comprometió a encontrar una solución antes de que se produzca el desalojo previsto.

Tras una reunión celebrada hace quince días con el vecindario de la zona, el Alcalde se comprometió a dar una respuesta en este plazo. A la vista de que el calendario avanza y se aproxima la fecha de expropiación de las viviendas de estos vecinos, presentamos la siguiente:

MOCIÓN DE CONTROL

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia /

hertsatuki eskatzen dio AHTren lanen ardura duten erakunde eskudunen artean bitartekari gisa jarduteko, Okendotegiko Erbitegi etxea nahitaez desjabetu eta presaz okupatu beharrekotzat jotzea dela kausa, gaur egun legez darabilten etxeak utzi beharra gertatu aurretik, donostiar horiei beste bizitegi iraunkor edo aldi baterako emateko.

San Sebastián insta al gobierno municipal, a mediar entre las instituciones competentes responsables de las obras del TAV, para que ante la expropiación forzosa y declaración de urgente ocupación de la casa Erbitegi de Okendotegi , se les proporcione a este grupo de donostiarras, antes del desalojo de las viviendas que ocupan actualmente de manera legal, una alternativa habitacional estable o vivienda de realojo.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio oinezkoentzako eta autoretarako sarbide seguruak bermatzeko, Okendotegi inguruan irisgarritasun baldintza egokiak ahalbidetzeko, are aipatutako lanak egiten bitartean ere.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián insta al gobierno municipal a garantizar vías de acceso seguras, peatonales y viarias, que permitan facilitar una adecuada condiciones de accesibilidad en el entorno de Okendotegi, también durante la realización de las mencionadas obras.

Donostian, 2019ko urriaren 18an

Donostia, de 18 de octubre de 2019

Haizea Garay Gallastegui, Ricardo Burutaran Ferré,

Haizea Garay Gallastegui Ricardo Burutaran Ferré

Irabazi Donostia udal taldeko zinegotzia. EH Bildu udal taldeko zinegotzia."

Concejala de Elkarrekin Donostia Concejal del Grupo Municipal EH BILDU".

Ricardo Burutaran Ferre jaunak eta Haizea Garay Gallastegi andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen el Señor y la Señora, D. Ricardo Burutaran Ferre y D.ª Haizea Garay Gallastegi en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONARTUA.**
**AHO BATEZ.**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**UNANIMIDAD.**

---------------

**II.2.31. Kontrol mozioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Altzako herri lanak direla eta.**

**II.2.31. Moción de control, presentada por el Grupo EH BILDU, sobre los trabajos de**

**Altza.**

“Zigor Etxeburua Urbizuk, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2019ko urriaren 14an Gune Publikoetako Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Kezkagarria iruditzen zaio EHBildu udal taldeari Donostiako udalak erakusten duen kontrol eza Altzan egiten dituen herri lanen inguruan; gabezia hori ez da berria, Eneko Goiaren eta bere koalizio gobernuaren aurreko agintalditik baitator. Ondo gogoan ditugu, adibidez: Harria parkeko estalpeak izandako atzerapena eta gorabeherak, Oleta ikastetxean amiantoz kutsatutako parterreen tratamendu eskasa, edota kiroldegi berria eraikitzeko lanak atzeratzea.

Abian den agintaldian ere, aipatu herri lanen kontrol ezak jarraitu egiten du. Larres izeneko eremuan 176.052 m3 lur bota dira Toschi-Iberica enpresak urtetan isuritako amiantoa isolatzeko. Auzotarrek eta Altza Osasuntsuagoaren Aldeko Plataformak eskatuta, esku-hartze horri aprobetxamendua eman zaio eta auzotarrentzako mesederako eremu bilakatu da. Parkea uda honetan ireki zaie herritarrei. Bada, batetik, parke berrian luiziak izan dira, eta bestetik, herritarren aldetik hainbat kexa jaso dira zoladuraz prestatu den pasealekuko zenbait eremu ibilgaitzak eta oso arriskutsuak direlako, duten malda itzela dela eta.

“Zigor Etxeburua Urbizu, concejal del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, somete la siguiente moción a la consideración del Pleno. La presente moción es consecuencia de la interpelación presentada en la Comisión de Espacios Públicos el 14 de octubre de 2019.

JUSTIFICACIÓN

En opinión del grupo municipal EH Bildu, la falta de control que el Ayuntamiento de San Sebastián demuestra en lo que respecta a las obras públicas que lleva a cabo en Altza es preocupante. Esta carencia no es nueva, sino que proviene del anterior mandato de Eneko Goia y su coalición de gobierno. Por citar algunos ejemplos que merecen ser recordados: retrasos e incidencias en la realización de la cubierta del parque de Harria, deficiente tratamiento de los parterres contaminados por amianto en la escuela de Oleta y retraso en la construcción del nuevo polideportivo.

La falta de control de las obras públicas mencionadas continúa en el actual mandato. En el ámbito de Larres, se han derribado 176.052 m3 de tierras para aislar el amianto vertido durante años por la empresa Toschi-Iberica. Gracias a la solicitud del vecindario y de la Plataforma por un Altza más Sano, se ha obtenido un beneficio adicional de esta intervención, ya que la zona se ha convertido en un lugar útil para los vecinos y vecinas. El parque se abrió este verano a la ciudadanía. Pero, una vez abierto, se han producido desprendimientos y, además, se han recibido quejas por parte de la ciudadanía en cuanto al pavimento, porque algunas zonas del paseo son impracticables y muy peligrosas, debido a la gran pendiente que presentan.

Horiek gutxi ez eta azken hilabeteotan Altzako hainbat familiak pairatu behar izan dute Harri Berri Ikastetxeko patioan estalpea egiteko lanen atzerapena. Hasieratik gorabehera handiak izan dituen egitasmoa da hau. 2019ko ekainaren 4an esleitu zuen Udal Gobernuak Harri Berri Ikastetxeko patioan estalpea egiteko lanen kontratua. Estaltze lanak esleitzeko erabakiak zehaztu zuen betetze-epea 3 hilabetekoa izango zela. Udal teknikariek ikastetxeko arduradunekin adostutakoaren arabera, lanak udako oporraldiarekin batera egitekoak ziren. Enpresak, ordea, lanekin hasteko legez eska dezakeen hilabeteko atzerapena eskatu zuen. Lanak behar baino beranduago hasteak egindako antolaketa aurreikuspenak hankaz gora bota zituen. Gainera, enpresak ez ditu bere konpromisoak behar bezala bete, eta atzerapena handitu egin da. Horren ondorioz, hilabeteko beste atzerapen bat onartu behar izan du Udal Gobernuak, atzerapen horregatik zigorra ezartzeaz batera enpresari. Bitartean, Harri Berri ikastetxeko HHko 132 ikasleek, beren gurasoek eta ikastetxeko irakasle eta gainerako langileek beraien egunerokoa aztoratuta eta zailduta ikusi dute, aski informaziorik jaso gabe udalaren partetik, eta irtenbideak eurek beraiek topatu behar izan dituztelarik.

Por si esto fuera poco, en los últimos meses, varias familias de Altza han tenido que sufrir el retraso en la construcción de la cubierta del patio de la escuela Harri Berri. Este es un proyecto en cuya ejecución se han dado importantes incidencias desde el principio. El 4 de junio de 2019, el Gobierno Municipal adjudicó el contrato de obras para la construcción de dicha cubierta. En el acuerdo de adjudicación se especificaba que el plazo de ejecución sería de tres meses. De acuerdo con lo acordado entre las y los técnicos municipales y las y los responsables del centro, los trabajos se realizarían coincidiendo con el periodo vacacional de verano. La empresa solicitó poder comenzar las obras un mes más tarde, algo que es perfectamente legal. Este retraso en el inicio de las obras puso en absoluto desorden las previsiones de organización. Además, posteriormente, la empresa no ha cumplido satisfactoriamente sus compromisos, por lo que el retaso ha sido aún mayor. Como consecuencia de ello, el Gobierno Municipal ha tenido que aceptar un nuevo retraso de un mes, además de imponer a la empresa las sanciones pertinentes. Mientras tanto, 132 alumnos y alumnas de Educación Infantil del centro Harri Berri, sus padres y madres, sus profesores y profesoras y el resto del personal del centro han visto alterada y dificultada su vida diaria, sin recibir, por otro lado, información suficiente por parte del Ayuntamiento, y teniendo que encontrar ellos mismos las soluciones pertinentes.

Hain zuzen ere, herri lanen garapenaren kontrol ezari gehitu behar zaio erreaktiboki jarduteko udalak duen ohitura, eta irtenbideak emateko erakusten ari den ezintasuna edo, onenean, moteltasun handia. Gure taldearen ustez, Udal Gobernuaren ohitura bihurtzen ari da proiektuak komunikatiboki saltzea, baina gero agindutakoa ez betetzea, auzotarrei

Por otra parte, a la falta de control de la ejecución de las obras públicas, hay que añadir la costumbre del Ayuntamiento de actuar de forma reactiva, así como la incapacidad de dar soluciones o, en el mejor de los casos, la gran lentitud con las que las da. En opinión de nuestro grupo, se está convirtiendo en un hábito del Gobierno

inolako azalpenik eman gabe.

Horregatik, pasa den urriaren 14ko Gune Publikoetako batzordean interpelatu genuen arloko zinegotzia eta galdetu genion zergatik ez diren Altzan egiten ari diren herri lanak Altza bertatik zaintzen, Ekialdeko Barrutiko bulegotik, hain zuzen ere. Zinegotziak, ordea, ez zuen erantzun.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako

KONTROL MOZIOA

1.- Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari Altzan egiten ari diren herri lanak Altza bertatik zaintzea, Ekialdeko Barrutiko bulegotik, hain zuzen ere, herritarren informazio eskubidea bermatzeko, herritarren parte-hartzea ahalbidetzeko, eta administrazio publikoek zaindu behar dituzten efikazia eta efizientzia printzipioak betetzeko.

Donostian, 2019ko urriaren 18an.

Zigor Etxeburua Urbizu
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Municipal vender a nivel de comunicación los proyectos, pero sin cumplir, posteriormente, lo prometido, y sin dar explicación alguna a la ciudadanía.

Por ello, en la Comisión de Espacios Públicos del pasado 14 de octubre, presentamos una interpelación a la concejala del área, en la que le preguntamos por qué las obras públicas que se están llevando a cabo en Altza no se controlan desde el propio barrio de Altza, valiéndose para ello de la Oficina del Distrito Este. La concejala no nos respondió.

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente

MOCIÓN DE CONTROL:

1.- El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a que controle las obras públicas que se están llevando a cabo en Altza desde el propio Altza, valiéndose para ello de la Oficina de Distrito Este, con el fin de garantizar el derecho de la ciudadanía a la información, facilitar la participación ciudadana y dar debido cumplimiento a los principios de eficacia y eficiencia que deben respetar las administraciones públicas.

San Sebastián, 18 de octubre de 2019

Zigor Etxeburua Urbizu,
concejal del grupo municipal EH Bildu".

Zigor Etxeburua Urbizu jaunak, Haizea Garay Gallastegi andreak eta Borja Corominas Fisas jaunak, parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen los Señores y la Señora, D. Zigor Etxeburua Urbizu. D.ª Haizea Garay Gallastegi y D. Boja Corominas fisas, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**ONATUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 11- (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 9 EAJ-PNV.**
**ABSTENTZIOAK: 0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**APROBADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 11- (6) EH BILDU, (2) PP, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA:9 EAJ-PNV.**
**ABSTENCIONES: 0**

--------------

**II.2.32. Kontrol mozioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, usoak kudeatzeko planari buruzkoa.**

“Marta Huarte Paño Irabazi Donostia udal taldeko zinegotziak honako Kontrol Mozio hau aurkeztu dut, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri hartuta. Hilabete honetan Gune Publikoen Batzordean usoen populazioa kudeatzeko planari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorio da mozioa.

JUSTIFIKAZIOA

Aurtengo abuztuaren 13an, Donostiako usoak harrapatu eta kontrolatzeko zerbitzua kontratatzeko espedientea onartu zuen Tokiko Gobernu Batzarrak.

Gizarteak gero eta sentsibilizazio handiagoa du animaliak errespetatzearen inguruan, eta, horren ondorioz, beharrezkoa da printzipio horiek sartzea eguneroko jardunean administrazioa kudeatzean. Usoak harrapatu eta akabatzea, krudela eta ez-eraginkorra izatetik harago, animalien babesari buruzko legeen aurkakotzat jo daiteke.

**II.2.32. Moción de control, presentado por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre el plan de gestión de palomas.**

“Marta Huarte Paño, Concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, de acuerdo con el artículo 98 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente Moción De Control consecuencia de la interpelación en la Comisión de Espacio Publico, Obras Y Servicios del presente mes, relativa al Plan de Gestión de la población de palomas en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Con fecha del 13 de agosto de este mismo año, la Junta de Gobierno Local aprobó el expediente de contratación del servicio de captura y control de palomas en Donostia-San Sebastian.

La creciente sensibilidad social en torno al respeto, sobre la protección y la defensa de los animales, ha ido haciendo necesario incorporar esos principios a la práctica diaria en la gestión de la administración. La práctica de capturar y exterminar palomas, mas alla de ser cruel e ineficaz, puede ser considerada contraria a las leyes en materia de protección de animales.

L’agencia de Salut Pública i el museu d´História natural de Catalunya-k egindako txosten batean egiaztatu bezala, 2009. urtean, Bartzelonako usoen populazioa % 95 hazi zen 1991 eta 2006 bitartean, harrapatze eta gasifikazio metodoa erabili arren. Ikerketaren arabera, metodoa ez da eraginkorra, normalean, ale gazteenak eta gaixoenak geratzen direlako harrapatuta; ar nagusiek, berriz, lehia txikiagoarekin ugaltzen jarraitzen dute.

En un informe elaborado por L’agencia de Salut Pública i el museu d´História natural de Catalunya en 2009 se constató que la población de palomas existente en la ciudad de Barcelona aumentó hasta un 95% entre los años 1991 y 2006 habiendo sido utilizado el método de capturas y gasificación. El estudio atribuye la ineficacia del método a la circunstancia de que normalmente son los ejemplares mas jóvenes y enfermos los que quedan atrapados, mientras que los machos dominantes continúan reproduciéndose con menor competencia.

Gure udal taldeak uste du usoen populazioa modu etikoan kontrolatu beharra dagoela. Eta alde horretatik, jaiotza tasa kontrolatzea nahiago dugu, pentsu antikontzeptiboa emanda. Gero eta udal gehiago ari dira kontrol modu etikoaren aldeko apustua egiten. Sevillan, Cadizen, Gasteizen, Bartzelonan, Lleidan eta Kataluniako hogei bat udalerritan, nikarbazina erabiltzean oinarritutako esperientziak dituzte jada. Arlo horretako adituek bermatzen OVIPSTOP merkataritza izenarekin saltzen den farmako horren eragingarritasuna (albaitaritzan erabiltzeko botika espezialitate bat), berariaz, hiriko usoetarako antisorgailu moduan erabiltzen den bakarra.

Creemos, desde nuestro grupo municipal, que el control de la población de palomas debe realizarse de forma ética. Y en ese sentido nos decantamos por el control de la natalidad mediante la administración de pienso anticonceptivo. Cada vez mas ayuntamientos están apostando por esta forma de control más ética. Sevilla, Cadiz, Vitoria, Barcelona, Lleida, y hasta una veintena de municipios catalanes, ya cuentan con experiencias basadas en el uso de nicarbazina. Expertos en la materia avalan la efectividad de este fármaco comercializado bajo la denominación comercial OVISTOP, una especialidad medicinal de uso veterinario aprobada con indicación única y expresa de anticonceptivo para palomas urbanas.

Hainbat proba zientifikok bermatzen dute metodo horren arrakasta, eta, horren arabera, farmako hori erabiltzeak biztanleria % 30 eta % 50 artean murriztuko luke urtebetean, eta, lau edo bost urtean, % 70 eta % 80 bitartean. Gainera, botikak ez du uzten ekosistemari eragin diezaiokeen hondakinik eta ez die kalterik eragiten pertsonei eta ingurumenari, eta arriskuak oso txikiak dira (zero arriskutik hurbil), pentsua hedatzea behar bezala kontrolatuz gero.

Distintas pruebas científicas avalan el éxito de dicho método, afirmando que el uso del mismo permitiría reducir la población entre un 30% y un 50% en un año y entre un 70% y 80% en cuatro o cinco años. Además, el fármaco no deja residuos que puedan afectar al ecosistema y no causa efectos adversos a las personas ni en el medio ambiente, siendo los riesgos muy reducidos (cercanos al riesgo cero) con un control adecuado de la administración del pienso.

Bestalde, pertsonek edo beste animaliek ustekabean kontsumituz gero, produktuaren kantitate izugarriak kontsumitu beharko lituzkete, ondorio kaltegarriak jasateko. Kontuan izan behar da produktua egunero kontsumitzea ia ezinezkoa dela, eta, are gutxiago, arazoak sortu lezakeen kantitaterik.

Por otra parte, ante un posible consumo accidental por parte de personas u otros animales, éstos deberían consumir cantidades ingentes de este producto para sufrir efectos adversos. Hay que tener en cuenta que el consumo diario de producto es prácticamente imposible y mucho menos ingerir la cantidad que podría generar problemas.

Orain arte, ez da egon Donostiako uso kopuruaren inguruko ikerlan fidagarririk, ez eta azken urteotan izan duen bilakaeraz ere, are gutxiago, biztanle kopuruaren arabera, usoen populazio ezin hobea zein den zehaztekorik ere. Beraz, ez dago usoak kudeatzeko planik, horiek hiltzeaz gain.

Hasta este momento no ha existido una estimación fiable de la cantidad de palomas en la ciudad, ni cuál ha sido su evolución en estos últimos años, y ni tampoco sobre cuál es la población óptima de palomas en funcion del número de habitantes. Por lo tanto, no hay un Plan de Gestión de las palomas, mas allá del sacrificio de las mismas.

Batzordean, zinegotzi ordezkariak esan zuen hiriko usoen erroldari buruzko azterketa egiten ari direla. Horrez gain, Osasun Publikoaren eta Animalien Ongizatearen Zerbitzua datorren urterako sentsibilizazio kanpainak egitea proposatu duela gaineratu zuen. Izurritzat hartzen ditu usoak, eta ez du kopurua ezagutzen. Bestalde, adierazi zuzenez, nikarbazina ez dute jotzen biozidatzat, ez baita hori, albaitariek kudeatu behar duten farmakoa baizik.

En Comisión, el Concejal delegado afirmó que están realizando un estudio sobre el censo de palomas en la ciudad. Tambien añadió que desde Salud Pública y Bienestar Animal se han propuesto realizar campañas de sensibilización para el próximo año. Se refiere a las palomas como plaga, desconociendo el número. Por otro lado, indicó que la nicarbazina no está incluida como biocida, puesto que no lo es, ya que es un fármaco que debe ser administrado por veterinarios.

Elkarrekin Donostiakoen ustez, harrapatzea eta hiltzea ohiko metodo ez-eraginkor eta batere ez-etikoaren aurrean, usoen populazioa kudeatzeko plan bat beharrezkoa da, eta nikarbazina Donostian erabiltzea kontuan hartu beharreko metodoa da... Hori guztia parte hartzeko programa bati lotu behar diogu, herritarrek usoei elikagaiak murrizteko neurrietan parte har dezaten, bai eta metodo etikoagoen berri eman ere.

Desde Elkarrekin Donostia creemos que, ante el ineficaz y nada ético método convencional de captura y sacrificio, hace falta un Plan de Gestión de la población de palomas y que el uso de nicarbazina es un método a tener en cuenta para ser implantado en la ciudad... Todo ello debería ir unido a un programa participativo con el objetivo de implicar a la ciudadanía en las medidas de reducción de alimento, asi como informar de la existencia de métodos más éticos.

KONTROL MOZIOA

MOCION DE CONTROL

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio Donostiako usoak kudeatzeko plan bat egiteko.

2. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsatuki eskatzen dio proiektu bateratu bat garatzeko erakunde animalistekin, auzo elkarteekin eta herritarrekin batera, elikagaiak lortzea mugatzea eta nikarbazinaren bidez kontrolatzea jasota.

3. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari hertsiki eskatzen dio usoak harrapatu eta hiltzea ez diren beste aukera batzuk aztertzeko, esate baterako, pentsu antikontzeptiboa erabiltzea.

4. Donostiako Udalbatzak Gobernu taldeari hertsatuki eskatzen dio saiakera esperientzia bat egitea, nikarbazina botikadun pentsua erabiltzea aztertzeko, usoak kontrolatzeko, 2017an Gobernuak berak egin zuen bezala, bai eta Gipuzkoako Aldundiari beharrezko informazioak eskatzeko ere.

Donostian, 2019ko urriaren 18an

Sinatua: Marta Huarte,
Elkarrekin Donostia udal taldearen zinegotzia."

1. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar un Plan de Gestión de palomas en la ciudad.

2. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a desarrollar un proyecto conjunto con entidades animalistas, asociaciones vecinales y ciudadanía que contemple la limitación de acceso a las fuentes de alimentación unido al control con nicarbazina.

3. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al Gobierno Municipal a estudiar otras alternativas a la captura y exterminio de palomas, como es la utilización de pienso anticonceptivo.

4. El Pleno del Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián insta al equipo de gobierno a llevar a cabo una experiencia piloto para valorar la utilización de pienso medicado con nicarbazina para el control de palomas, tal y como se realizó en el año del 2017 por el propio Gobierno, y solicitar las informaciones pertinentes a la Diputación de Guipuzcoa.

Donostia, 18 de octubre de 2019

Fdo.: Marta Huarte
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia".

Marta Huarte Paño andreak, Mikel Lezama Zubeldia jaunak eta Reyes Carrere Zabala andreak parte hartu dute puntu honetan, Bilkura Egunerokoan jasotako bileraren grabazioan ageri dena adieraziz.

Intervienen las Señoras y el Señor, D.ª Marta Huarte Paño, D. Mikel Lezama Zubeldia y D.ª Reyes Carrere Zabala , en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**BOZKETAREN EMAITZA:**
**BAZTERTUA.**
**GEHIENGOA.**
**ALDEKO BOTOAK: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**AURKAKO BOTOAK: 11 - (9) EAJ-PNV, (2) PP.**
**ABSTENTZIOAK:0**

**RESULTADO DE LA VOTACIÓN:**
**RECHAZADA.**
**MAYORÍA.**
**VOTOS A FAVOR: 9 - (6) EH BILDU, (3) ELKARREKIN DONOSTIA.**
**VOTOS EN CONTRA: 11 - (9) EAJ-PNV, (2) PP.**
**ABSTENCIONES: 0**

-------------------

**ETA BESTELAKO AZTERGAIRIK EZ DENEZ, LEHENDAKARITZAK, AKTAKO LEHEN ORRIAREN BURUAN ADIERAZITAKO EGUNEKO ARRATSALDEKO SEIRAK ETA HOGEITA HAMAR MINUTUTAN, AMAITUTZAT JO DUT BILERA. ETA NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, BILERAN ESANDAKO GUZTIAREN FEDE EMATEN DUT:**

**Y NO SIENDO OTRO EL OBJETO DE LA SESIÓN, LA PRESIDENCIA LA DECLARA TERMINADA, LEVANTÁNDOSE EL ACTO, SIENDO LAS DIECIOCHO HORAS Y TREINTA MINUTOS DE LA FECHA EXPRESADA EN EL ENCABEZAMIENTO DE LA PRESENTE ACTA, DE TODO LO CUAL, YO, EL SECRETARIO, DOY FE:**

**LEHENDAKARIA: / EL PRESIDENTE:**

**IDAZKARIA: / EL SECRETARIO:**